

GUAIXE.NET



Castillo Suarezen
Zerua berun
liburua saritua



kultura >> 15

1003 mendizalek parte hartu zuten
25. Sakanako Ibilaldi Handian.
Ibilbidea alderantziz egiteak
arrakasta izan zuen



kirola >> 13



Sakanako Mankomunitateak 2014ko aurrekontuak onartu ditu, Nafarroako Gobernuaren murrizketek guztiz baldintzatutakoak.

Altsasuko Alde Zaharreko festak >> 9



Langileen aldarrikapenak kalera >> 8



Mank-en aurrekontuak

>> 5

Maiatzarekin batera maiatzak zutik

Bakaikun eta Etxarri Aranatzeko eguerdian zutitu zituzten, barga gainean. Iturmendin, aldiz, arratsaldean igo zuten, plazan, aurtengo maiatza

>> 6



Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuak Europako topaketan >> 7

>> 7



Maiatzak 24 II.GUAIXE SARIA Olazti Urbasa Rallysprinta

Sarrerak saltzen egoteko
boluntarioak

behar ditugu 948 562 107 telefonora edo idatzi bierrik@guaixe.net helbidera

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Adur eta Amaiur
ZORIONAK
maitexos zen 8 urte-
betetzien. Muxu asko
denon partetik. Ongi
pasa eguna.



Adur eta Amaiur
ZORIONAK bikote
eta oso ondo pasa!!
Muxu pila pila Malaga-
tik. Mikel eta Ana.



Ainetz Lazkoz
Ginea
Bihurria, maitakorra, alai...
Horrelakoa zara zu eta ho-
rrela maite zaitugu guk.
ZORIONAK pobolo!!



Ainetz Lazkoz
Ginea
ZORIONAK tesoro!! Igande-
an 4 urte beteko dituzu.
Egun ona pasa eta muxu pila
bat famili guztiaren partez.



Oinatz
ZORIONAK pirata!
Ya mutil bet einda...
iye pixkat txintxotzen
zan. 9 muxu aittuna
ta amonan partes.



Oinatz
ZORIONAK ganberro!! Zu
handitzen ta gu zahartzen...
ez fan hain azkar! 9 urteiek
disfrutetu. Muxubek aita,
ama ta Enaitzen partes.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

maiatzak

2-8

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Ikuskizuna

Cocertino para Orgánico y Palabro.
Maiatzaren 2an, ostiralean, 23:00etan
Altsasuko gaztetxean.

Dantza

Dantzari Txiki eguna. Maiatzaren 3an,
larunbatean, 11:00etatik aurrera
Altsasun.

Elai Alai eguna. Maiatzaren 4an,
igande, 12:00etatik aurrera
Lakuntzan.

Erakusketak

Nazabal arte eskola. Maiatzaren 15era
arte astegunetan 18:30etik 21:00etara
eta domekan 19:00etatik 21:00etara
Altsasuko Iortia kultur gunean.

Lentzeria eta zeramika erakusketa.
Maiatzaren 3an, larunbatean,
20:00etatik 22:00etara eta maiatzaren
4an, domekan 11:00etatik 14:30era
Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Literatura

Ezinezko maletak. Maiatzaren 8an,
ostegunetan, 19:00etan Etxarri
Aranazko liburutegian. Irakurle taldea.

Txirrindula irteerak

San Benito ermita. Maiatzaren 4an,
domekan, 8:30ean Altsasuko
Zumalakarregi plazatik edo 9:20ean
Bioitza kanpinean. 60 km. **Burunda
mendi bizikleta taldea.**

Bestelakoak

Zorri azoka, merkatu soziala.
Maiatzaren 2an, ostiralean, 17:00etatik
21:00etara Etxarri Aranazko estalpean.

Gran Circo Ideal. Maiatzaren 2an,
ostiralean, 19:00etan, maiatzaren 3an,
larunbatean, 17:00etan eta 19:00etan
eta maiatzaren 4an, domekan,
17:00etan Altsasuko Dantzalekun.

Hipotekek kaltetutakoan Plataforma.
Maiatzaren 2an, ostiralean, 19:00etan
Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko
1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira!
Maiatzaren 2an, ostiralean, 20:00etan
Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko
plazetan elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira!
Maiatzaren 4an, domekan, 20:00etan
Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada.
Maiatzaren 5ean, astelehenean, 15:30ean
Altsasuko Gure Etxea eraikinean.



Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak...

Esataria: *Alfredo*

Elkarrekin bidea egiten

abenduan

bierrik

fundazioa

20
urte

maiatzak 3

107.3 FM

beleixe

15
urte

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

BI ERREFUXIATU BUELTRAN: Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak iragarri bezala hasi dira errefuxiatuak euren herrietara itzultzen.

Hala egin dute Teodoro Iza etxarriarrak eta Lourdes Mendinueta arbizuarrak. Azken horri apirilaren 12an harrera egin zioten.

sakanerria >>

SAKANA

Gobernuaren murrizketek Mank-en aurrekontua baldintzatu dute

Zerbitzuak mantendu ahal izateko udalek bere gain hartu dute gobernutik jaso ez dena. Sakanako Garapen Agentziari bultzada eman zaio aurten

Sakanako Mankomunitateak aurten 3.501.860,78 euro kudeatuko ditu, pasa den urtean baino %4,8 gutxiago. Udalek Mank-i diru ekarpen handiagoa egin beharrean suertatu dira, guztien artean 117.000 euro gehiago jarritz, Nafarroako Gobernuak euskara (15.000 euro) eta kirol (14.000 euro) zerbitzuak mantentzeko diru-laguntzak murriztu dituelako. Garapena sustatzera bideratu da gainontzekoa. Udalen ahalegin horri esker ibarreko erakundeak bere zerbitzu guztiei eutsi ahal die.

Adolfo Araiz gerenteak batzarrari azalduzionez, erakundearen sarrera eta gastuak orekatuak dira. Mank-ek 1.227.000 euroko zorra du, hondakin bilketa sistema berriaren ezarpenarekin 400.000 eurotan hazi dena. Baina legearen mugen barruan oraindik zorpetzeko ahalmena du oraindik Mank-ek.

Ikuskaritza

UPNk Nafarroako Parlamentuan Sakanako Mankomunitatearen kontuak ikuskatzeko eskatu zuen. Nafarroako Kontu Ganberako teknikariak azaroa eta martxo artean ibarreko erakundearen finantza egoera eta kontratazioak azter-



Mank-eko batzarkideak, aurtengo aurrekontuak bozkatzeko.

tzen egon dira, zerbitzu guztietan. Araizek aurreratu zuenez, ikuskaritzak erakundeak printzipio legalak egoki betetzen dituela eta finantza egoera ona duela adiera-

zi du. Kontratazio arloan irizpide ezberdinengatik ezadostasun txikiak izan direla jakinarazi zuen. Kontu Ganberaren txosten zirriborroari ekarpenak egingen dizkio

Mank-ek eta behin betikoa udazkenerako edo izanen da. PPK eskatuta erakunde berak Etxarri Arantz eta Olatzagutiko kontuak ikuskatuko ditu.

Hondakin bilketaren zabalkundea



Mank-ek 150.000 euro bideratu ditu hondakin bilketa arlorako. Ibarreko erakundeak eta Irurtzun eta Altsasuko Udaletako ordezkariak hizketan ari dira bi herri horietan hondakin bilketa berriaren ezarpena zehazteko. Asmoa auzo-konpostajearekin hasia litzateke. Horregatik bai herri batean bai bestean auzo-konpostaguneak non jarriko liratekeen zehazten ari dira.

Kudeatzaileak azaldu digunez, Irurtzongo lanak aurreratuagoak dituzte eta 7 bat kokapen liratekeela aurreratu du. Altsasun, berriz, 8 edo 10 artean. Mank-eko gerenteak esan digunez bi herrietan ere Lakuntzan probaldian dagoen konpostagailu eredua jarriko litzateke, "oraingoz esperientzia positiboa delako". Araizek azaldu digunez, konpostagailu eredu horren ezaugarria "malgutasuna da, modularra delako eta tokiaren eta erabiltzaile kopuruaren arabera modulu gehiago edo gutxiago jarri daitezke".

Sakanako Garapen Agentzia

Mank-ek bere enpresa publikorako 90.000 euro bideratu ditu. Hasieran kopuru handiagoa aurreikusia zuten baina egitasmoa udalen ahalmenaren arabera egokitu dute Mank-en. Diru horren zati bat teknikari berri bat kontratatuz bideratuko da.

Beste zati bat, 13.800 euro, herri guztietan energia eraginkortasun ikerketa bat egitera bideratuko da. Eraikin publikoen eta argiteria publikoaren energia kontsumoaren diagnostia egiteko balioko du ikerketak. Hori eskuan udal bakoitzak energia faktura murrizteko zein neurri hartu erabakiko du. Cederaren bidez lortutako diru-laguntza bat ere izanen da horretarako.

Mank-ek energia eraginkortasuna sustatuko du

Energia eraginkortasunaren aldeko alkateen hitzarmenarekin bat egitea erabaki zuen Mank-ek asteartean. Europako toki eta eskualde mailako agintariek parte hartzen duten hitzarmena da. Euren lurraldeetan energia eraginkortasuna hobetu eta energia berriztagarriak erabiltzea sustatzeko konpromisoa dute sinatzaileek. Asmoa da 2020 urterako CO₂ isuriak %20 murriztea. Mank-ek udalei informazioa eta laguntza emango die.

Mank-ek ETB LTD bidez Nafarroa guztian ikusteko eskaera egin du

ETB Nafarroan lehenbailehen ikusteko behin behineko formulak onartzeko eskatu dizkio

Sakanan 2009ko abendutik ETB ETB Lurreko Telebista Digital (LTD) bidez ikusteko aukerarik ez dago. LTD bidez euskarazko katea eta haur eta gazteei zuzendutako ETB3 katea ikusterik ez dago ez

Sakanan ezta Nafarroa guztian ere. Analogikoki ETBren bi kate ikusten dira, baina seinalea ez da ona eta bi telebista agindurekin ibili behar izaten da. Aurki, gainera, aukera hori bera ere ez da izan ezta itzalaldi digitala Europa guztira zabalduko delako.

Gaur egun hedabideak hizkuntzei bizitasuna emateko ezinbesteko tresna eraginkorretako bat dela jakitun, gaiarekin kezkatuta zegoen sakandar talde batek mozioa aurkeztu zuen Mank-en eta asteartean aho batez onartu zen. Ibarreko erakundeak Nafarroako Gobernuari eskatu dio LTD bidez ETB Nafarroa guztian ikusteko bide berriak lantzeko. Hori lehenbailehen izan dadin behin behineko formulak onartzeko eskatu dio foru administrazioari, esaterako, egungo ETBren sare analogikoa digitalizatuz edo bestelako neurriekin.



**PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!**

Berria erosi taldea

**FRONTOIKO
TABERNA**

**948 469 138
ERKUDEN 4 · ALTSASU**

CONSTRUCCIONES ALZATE S.I.

**ALZATE
ERAIKUNTZAK
S.I.**

Zubetia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

nereacnoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

**Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)**

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

R.P.S. N° 272/04

>> Etxarri Aranatz / Bakaiku / Iturmendi



>> Etxarri Aranatz / Bakaiku / Iturmendi

Dendari Elkarteak, irudi eta kanpaina berria



Dozena bat proposamen aurkeztu ziren eta epaimahaiak Elena Verarena aukeratu du. Altsasuarrak azaldu du logotipoak egiterakoan lerro xumeen alde egiten duela, "testuari ikusgarritasuna ematen diotelako eta ateporalak direlako". Irudian siglen ondoan tamaina eta kolore ezberdineko hiru poltsa jarri ditu Verak, "Altsasun dagoen merkataritza aniztasuna eta ugaritasuna" islatzeko. Sortzaileak duela bi urteko festetako kartel irabazlea egin zuen eta bere lanak www.elenaverablog.com helbidean ikus daitezke.

Elena Veraren logoa oinarri duen jolasarekin Mediterraneoan barnako kruzeroa eta luxuzko asteburu irabazteko aukera izanen da

Altsasuko Dendari Elkarteak (ADE) Alberto Angianok eta Estibaliz Asensiok aurkeztu dute elkartearen irudi berria. Angianok esan duenez, "logotipoa aldatu dugu elkarteari bultzada emateko eta elkarteko kide diren establezimenduak begi kolpean ezagutarazteko". Irudi berria elkartearen aro berri baten hasiera izatea nahi luketela azaldu du

Asensiok. ADEn ez dauden dendariei ere elkartera sartzeko gonbitea egin diete, elkarrekin indar gehiago egiten dutelako.

Kanpaina

Elkartearen denda guztietan eta herriko hainbat toki nabarmenetan kartel batzuk jarriko dituzte. Haietan logotipo berria makina bat aldiz agertzen da, batzuk zuzen eta beste batzuk moldatuta. Zenbat logotipo zuzen dauden asmatzea da proposatzen zaiguna.

Maiatzaren 2tik 14ra ADEko 32

establezimenduetan 5 eurotik gorako erosketak egiten dituztenek txarteltxo bana jasoko dute. Hartan idatzi beharko da logo zuzen kopurua zein den, edo zein den kopurua uste den, "baina pasa gabe". Parte-hartzaileen artean Mediterraneo barnako kruzeroa eta luxuzko asteburu bat zozketatuko du ADEk. Angianok nabarmendu du kanpaina hori aurrera eramateko ahalegin handia egin dutela. Asensiok, berriz, bi aste horietan herriko komertzioetan erosteko gonbitea luzatu du.

>> Irurtzun

Txantiloiairen artean hasiberriak

Aurreko astean guztian Irurtzungen Gaztetxokoko 40 gaztek stencil ikastaroan parte hartu zuten. 12 eta 16 urte bitarteko gazteak, bi taldeetan banatuta, Ibai Viñas eta Itziar Matxain irakasleekin stencil teknikaren nondik norakoak ezagutu zituzten. Stencila apaintzeko arte teknika bat da. Marrazki baten forma ebakiz txantiloia egin eta hura erabiltzen da irudia sortzeko.

Gazteek teknikaren nondik norakoak jaso eta teknika hori erabiltzen duen Bansky artista famatuaren obra ezagutu zuten. Ikastaroan txantiloia batzuk egin eta haiek erabiltzeko aukera izan zuten. Biltzen diren egoitzan bertan Gaztetxoko hitza margotu zuten. Udalak igerilekuan utzitako pareta batean, berriz, urarekin zerikusiaz zuten makina bat irudi margotu zituzten.



40 gaztek stencil teknikaren nondik norakoak ezagutu zituzten. UTZITAKOIA

>> Irurtzun

Gurasoek adimen emozionala erabil dezaten

Maiatzaren 6an, 15ean eta 27an, 15:20tik 17:00etara Atakondoa eskolan

Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak gurasoei zuzendutako adimen emozionalari buruzko tailerra antolatu du. Tailer horretan egunerokotasunean helduek euren buruekin eta euren seme-alabekin erabili ahal izanen dituzten gaitasunak erakutsiko dizkie Gaztelu Lus psikologoak. Tailerra Atakondoko Guraso Elkartearen eta eskolaren laguntzaz antolatu da.

>> Ziordia

Bake epailearen kargua hutsik

Ziordiko bake epaile titularren eta ordezkoren karguak hutsik daude eta haiek betetzeko deialdia egin da. Kargu horietan interesa dutenek eskabideak udaletxeko bulegoan aurkeztu beharko dituzte. Epea bukatzean da.

>> Altsasu



Pintura txuriz zikinduta.

Pintura txuria aseguru-etxe bati

Astearte goizean Altsasuko Mutuavenir aseguru-etxearen kristaldegia guztia pintura txuriz zikinduta agertu zen. Harriduraz hartu zuen eraso bulegoa kudeatzen duen Susana Mateok. Azaldu zigunez marka horren kontzesioa da berak Altsasun kudeatzen duena. "Kartelak dioen moduan aseguruak eta zerbitzuak kudeatzen ditut, ez besterik". Bere bulegotik enpresa txiki eta ertain, ibilgailu, denda, etxebizitza, bizi aseguruak edo bestelakoak aseguratzeko edo kudeatzeko nahi dutenak pasatzen direla jakinarazi zigun. Mutuavenir taldearen egitekoa hori dela ere argitu du. Mateoren ustea da Mutuavenir izek sortutako nahasmenak ekarri duela pinturaz bulego sarrera zikintzea. "Aseguru-etxe bat gara, ez mutua bat. Gurea aseguruak eta zerbitzuak dira, ez lan-osasuna, izenak norbaiti besterik iradoki badiezaioke". Mutuekin lotura hori aipatu zuen Mateok Espainiako Gobernuak Mutuen Legea aldatzekotan delako eta horren aurka hainbat iritzi zabaldu direlako azken aldirian, "eta bakarren batek hau mutua bat dela pentsatu du".

» Arakil / Irurtzun

Gizarte Zerbitzuak Europako eskualdeak gizarteratzearen alde proiektuan

Europako Batasunak onartutako programaren barruan kontinenteko 25 erakunde heldu den astean Madrilen elkartuko dira

Heldu den astean, ostegunetik larunbatera, Madrilen izanen da Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkari bat. Edurne Razkinek, Ekiñe Ramosek, Mikel Razkinek eta Bego Zestauk Europako eskualdeak gizarteratzearen alde izeneko proiektuan parte hartuko dute, Polonia, Espainia, Hungaria, Bulgaria, Errumania, Italia, Lituania, Belgika, Britainia Handia, Malta, Suedia eta Montenegroko beste 24 erakunderekin batera (tokiko gobernuak, GKEk, EBko goi mailako erakunde politikoak eta herritarrak). Guztien artean sarea sortu eta elkarlanean ariko dira.

Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkariak Madrilen bi esperientzien berri emanen dute. Alde batetik, babestutako gizarte enpleguaren bidez herrietako ondarea berres-

kuratzeko garatu duten Iturraskarri programa. Haren berri praktika onen inguruko saio batean emanen dute, *toki komunitatearen sartzeara arazo sozialen konponbidean* izenburuarekin.

Bestetik, Arakil aldetik Madril joandakoek gizarte sartzeara programaren bidez egiten dituzten lanak ere azalduko dituzte. *Hurbiltze osagarriak eta administrazio publikoen zerbitzuak inklusio politiketan* izenburuko mahai-inguruan izanen da.

Gehiago

Europako eskualdeak gizarteratzearen alde proiektua aurten eta heldu den urtean garatuko da. Edurne Razkin martxoan Poloniako Lodzen izan zen topaketak prestatzeko. Madrilgoaren ondoren, lastailean Polonian topaketa berria egingen dute. Han seminarioa eta lan taldeetan elkartuko dira gizarte ekonomiaz eta hark toki garapenean duen eraginaz



Edurne Razkin, Mikel Razkin eta Bego Zestau.

hizketatzeko.

Heldu den urtean bi topaketa gehiago egingen dituzte. Apirilean Malta izanen da topagunea. *Gazteria politikak, mugikortasuna, enpleabilitatea, familia eta*

hezkuntza arloko trukeak eta konponbideak gaiaren inguruan ariko dira orduan. Azken topaketa Belgikan izanen da heldu den urteko lastailean. *Europako Batasunean gizarte inklusio*ko politi-

Sarea sortzeko

Poloniako Lodzeskualdekogarapen agentziaren ekimenez sortu da kontinenteko elkarlan sarea. Europako eskualdeak gizarteratzearen alde izeneko proiektua Europako Batasunaren Europa herritarrendakoprogramaren bidez diruz lagundu dute. Proiektuak 25 erakundeen artean sarea sortu, harremanak izan eta etorkizunean elkarlanean aritzeko atea zabaltzen du.

Irurtzango egoitzatik esan digutenez, "krisiagatik eta, beste eskualdeetan egoera zailak pasatzen ari dira eta handik hona ekartzeko moduko ideiak egon daitezke". Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen langileen azaldu digutenez, "orain arte Europako Batasunak hartutako neurriak toki guztietara iritsi diren, nola, ikertuko dugu". Besteak beste, Europako estrategiak, gizarteratzearen garapena, gizarte zibileko elkarrikeria, garapen iraunkorra...

kak, toki erakundeen papera gaia- ren inguruko konferentzia izanen da Bruselan.

SAKANA

Zaletasunetik negozioira

Langabeek euren zaletasunetik abiatuta negozioak sortzeko ikastaroan izen ematea zabalik

Nire zaletasuna mikronegozio bihurtu. Izenburu hori duen ikastaroa langabetuei zuzenduta dago. Hiru orduko bost saiotan honako gaiak landuko dituzte: sormena, aitzindaritzak eta ekintzailetzarako trebetasunak, zaletasunak eta hobbyak identifikatzea eta haietatik abiatuta negozio prototipoak sortzea. Ikastaroa heldu den ostegunean hasiko da, maiatzaren 8an, eta hilaren 15ean, 22an, 29an eta garagarriaren 5ean izanen dute segida. Altsasuko lortia kultur gunean izanen da ikastaroa, Cederna-Garalurrek antolatuta, Altsasuko Udalararen laguntzaz.

Informazioa eta izen ematea

948567010 edosakana.admon@cederna.es

» Irurtzun

Atakondoako aldagelak konpontzea erabaki da

Aurrekontu-parte hartzaileetan aukera horrek jaso du babes gehien eta lanak udan egingen ditu udalak

Aurtengo udal aurrekontuaren %2, 35.000 euro, zertara bideratu erabakitzeak aukera izan dute irurtzundarrek eta eskola publikoko aldagelak konpontzea erabaki dute. Txiki Iriarte alkateak jakinarazi digu lan horiek udan egingen direla. Gaineratu du Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetan lanak egiteko diru-laguntza deialdia egitearen duela eta eskaera egingen duela udalak, horrela ikastetxean konponketa lan gehiago egin ahal izateko.

Pasa den ostegunean aurkeztu zizkien Aurrekontu Parte-hartzaileen Lantaldeak herritarren bozketaren emaitzak udaleko taldeei. 422 bozka paper jaso dituzte martxoaren 29tik apirilaren 6ra herriko hainbat tokitan jarritako kutxe-

Egingen diren lanak

Iturgintzaren berrikuntza, ur beroaren bideratze berria eta egungo ur hotzaren sarearen aldaketa; 16 dutxa eta 4 komunitako sarrera ateen aldaketa, hezetasunari erresistentzia handiago duten materialak erabiliz; konketa eta ur pikak dauden tokiaren hobekuntza eta margo erremateak, bukaerak, ispi-luak eta argi aparailuak.

tan. Babes gehien izan duen aukera, aldagelak konpontzearenak 155 boz jaso ditu (%36,72). Gimnasioa egiteko proposamenak 20 boz gutxiago izan ditu (%31,99).

Ospakizunak eta bestelako ekitaldiak hartuko lituzkeen karpabaten errosketa 84 irurtzundarrek babestu dute (%19,9) eta, azkenik,



Gurasoak Atakondoan haurrak noiz atera zain itxaroten.

umeekin estalpean egoteko azpiegitura sortzearen alde 35 boz jaso dira (%8,29). Gainera, dozena bat paper txuri edo baliogabe ere jaso dituzte (%2,84).

54 proposamen

Heldu den urterako irurtzundarrek egin dituztenak.

xapatero taberna

948 460 162
Etxarri-Aranatz

TxikiTxo
haurren atropa eta lantzerria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

BIL TOKI
TABERNA · JATETXE

©gitartekoak barran
Menu berezia
Karta

Ongi pasa
alde zaharreko
festak

948 467 876
Altsasu

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

» Arbizu

Gartziandia karguekin aske

Epaiketaren zain dago "terrorismoa goratzea" egotzi ondoren

Iruñeko Guardia Zibilaren komandantzia deklaratu ondoren aske gelditu zen astelehenean Asier Gartziandia. Bere askatasunaren berri Arbizuko plazan egiten ari zen informazio batzarraren erdian iritsi zen. Atxiloketak salatu zituzten Eleak mugimenduak, Ernaik, Gazte Abertzaleak, Sortuk eta Alternatibak. Adierazpen askatasunaren alde mezu ugari zabaldu ziren sareen bidez egunean zehar.

Espainiako Auzitegi Nazionalako Eloy Velasco epailearen agindupean egindako operazioa izan zen. Elkarrekin harremanik ez duten 21 pertsona atxilotu zituen Guardia Zibilak. Guztiei sare sozialen bidez terrorismoa gora-

tzea eta terrorismoko biktimak umiliatzea leporatu zieten. Hala-ko akusazioak izan diren beste kasuetan akusatuak epaitegi-tera deitu izan dituzte, atxilotu gabe. 21ek bi urte arteko espetxe zigorrei aurre egin beharko diete. Antza, Madrilen epaitu beharrean atxilotu bakoitza bere herrialdean epaituko lukete.

Gartziandiaren atxiloketa

Gartziandia 10:15ean atxilotu zuten. Etxetik atera zenean, bi autoetatik jaitsitako kalejantzitako Guardia Zibilak hurbildu zitzaizkion. Eskuburdinak jartzea ukatu zenean lauzpabost patruila gehiago agertu ziren eta handik ateratakoen artean lurrera bota, burua zapatu eta hala eraman zuten. Inguruan



Astelehenean 100 bat pertsona bildu ziren Arbizun, atxiloketa salatzen.

ziren herritarrei atxiloketaren arrazoia jakinarazteko beta izan zuten Gartziandiak.

Atxilotu ondoren, ordu erdi eman zuten patrol batean, Lakuntzan, geldi. Guardia Zibilek behin eta berriz eskatu zitoten bere telefono mugikorreko gakoa. Eman zienean eraman zuten Iruñeko Guardia Zibilaren komandantziako ziegara. Bidean hainbat argazki, mezu eta ahots deien transkripzioak erakutsi zizkieten (16 orri)

bereak ote ziren galdetuz. Aurreko urteetan hainbat tokitan egon zen ere galdetu zioten bidean.

14:00etan, konfiantzazko abokatu aldean zuela deklaratzeari uko egin zion eta Iruñeko bidean egindako galdera bat bera ere ez zioten egin Guardia Zibilek. 20:00etan aske utzi zuten. Baina 16:00etan Madrilera eramanen zituztela esan zieten arbizuarri eta sarekada berean atxilotutako beste gazte bati.

» MOTZEAN

Mank enplegu tailerrari buruzko helegitea aurkeztea aztertzen ari da

Nafarroako Gobernuak atzera botatzeko zuen irizpidea ez dela zuzena uste du

Sakanako Mankomunitateak aurtengo hondakinen kudeaketari buruzko enplegu tailerra egin asmo zuen eta horretarako Nafarroako Gobernuaren laguntza deialdian egitasmoa aurkeztu zuen. Mank-en proposamena hasierako baloraziotik kanpo utzi zuten. Ibarreko erakundearen proposamenean jaso zen 15 partaideetatik berak bi langile eta enpresa laguntzaileak beste bat kontratatuko zituztela lau hilabeterako. Inolako txosten idatzirik gabe, ahozko kontsulta bakar batekin, atzera bota zuten Mank-en proposamena, erakunde batek kontratuzuzenik ezin duela egin adieraziz. Ibarreko erakundea helegitea aurkeztea aztertzen ari da, oposizio murriz baten bidez egin daitekeela agudiatzen du horretarako.

Musika eskolarako bi irakasle kontratatuko dira

Gitarra klasiko eta zeharkako txirula irakasle lanpostuak oposizio lehiaketa bidez beteko dira

Irurtzango Udalak oposizio-lehiaketa bidez gitarra klasikoko eta zeharkako txirula eskolak emanen dituzten bi irakasle kontratatuko ditu. Aukeratuak diren pertsonak lan kontratufinkoa izanendute eta haien lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da. Eskabideak maiatza akabera arte aurkeztu daitezke Irurtzango udaletxean.

Merkatu soziala bueltan da

Gaur, 17:00etatik 21:00etara, Etxarriko estalpean

Hileko aurreneko ostiralari hutsik egin gabe, gaur Etxarri Aranatzek Zorri Azoka, merkatu soziala hartuko du. Han bilduko da Sakanako makinabatekoizle, artisauek eta artisten eskaintza, besteak beste: fruitu eta barazki ekologikoak, bitxiakeriak, bertako produktuak edo margolanak. Ohienez, 19:00etatik 20:00etara, trakerako tartea ere izanen da. Gainera, 19:30ean, Zorri Azokako zarea zozketatuko da.

» SAKANA

Sindikatuaren aldaketa eskaerak Maiatzaren Lehenean

ELA sindikatua bestelako eredu ekonomiko, sozial eta politikoen baten alde mobilizatu zen Bilbon. Antolakuntza eta borrokaren balioa berretsi zuten ELAkoek.

Sakanan mobilizazioa deitu zuten sindikatu bakarra LAB izan zen. Bere jarraitzaileak eguerdian Altsasun egindako manifestazioan eta ondorengo bazkarian elkar-tu zituen. Eredu politikoa eta ekonomikoaren aldaketaren aldarria egin zuten LABetik. Nafarroan hegemonia berria aitzinarazteko



Atzo LABek manifestazioa deitu zuen Altsasun.

garaia zela nabarmendu zuen LABek, langileriarena, pertsonen zerbitzura egongo den eredu ekonomiko eta sozial berria eraikitze-
ra deituz.

UGTk eta CCOOk Iruñean egin zuten manifestazioan enplegua, duintasuna eta eskubideak aldarrikatu zituzten. STEE-EILASEk, CNTk, CGTk, Solidarik eta ESKk elkarrekin manifestatu ziren Iruñean atzo. Kapitalismoarekin akabatzea eskatu zuten, baita lana eta aberastasuna banatzea ere.

» Altsasu

Oztopoak oztopo, burutakzioa

Ernai eta Aitzina gazte mugimenduen apirilaren 17tik 19ra bitartean Burutakzioa izena eman zioten topaketa antolatu zuten Altsasun.

1.200 gazte bildu ziren teoriatik praktikara jauzi egiteko prestakuntza saioetan parte hartzeko. Nahiz eta aurreikusitako hiru eguneko egitaraua bitara murriztu. Izan ere, Nafarroako Gobernuak, azken orduan, antolatzaileei jakinarazi zien, batetik, eskola publikoak erabiltzeko debekua zegoela eta,

bestetik, hiru egun baino gehiagoko kanpaldirik ezin zela egin. Horren aurrean antolatzaileek osteguneko egitaraua bertan behera uztea erabaki zuten.

Hala ere, gazte mugimenduetako kideek adierazi dute aurreikuspenak bete zirela eta emaitzarekin pozik zeudela. Eguraldi ona lagun, kalean egin zituzten prestatu zituzten dinamika guztiak eta herritarrek haiek ikusteko aukera izan zuten.



Gazteen ekitaldiaren bat.

» SAKANA



Sakanako herri-eskolen festa maiatzaren 10ean ospatuko da Altsasun.

Hainbat babes Sakanako herri-eskolen festari

Sortzen, Sakanako herri-eskolek eta Guraso Elkarteek antolatuta, maiatzaren 10ean Altsasun ospatuko da Sakanako herri-eskolen festaren laugarren edizioa.

Sakana herri eskolekin sortzen leloa izanen du ospakizunak. Jai giroan ibarreko biztanleen elkargunea eta euskararen erabileraren sustatzaile izan nahi du.

Egunerako egitaraua zabala prestatu dute ibarreko eskolen artean eta Altsasuko kultur eragileen laguntzaz. Hala, egun guztirako festa egitaraua antolatu dute, Foru, Zubeztia eta Otai plazak festaren ardatz bihurtuz.

Festari babesa eman diotenen artean daude: herri eskoletako zuzendariak, guraso elkarteki-

de, guraso eta haurrak, Aiora Epelde Agirre (Sortzen elkarte-ko bozeramailea), Patxi Flores (AEK-ko irakaslea), Migeltxo Saralegi (harrijasotzailea), Dora Salazar (eskultorea), Iker Flores (kirolaria), Iñigo Goikoetxea (Gozategi), Raul Audicana (kirolaria) eta Garbiñe Petriati (Behatokia).



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)



Jesus Irurtia Lizasoain

Lagun zintzoa

Zuk utzitako hutsunea betetzea ezinezkoa izango da.

Irañetako lagunak



Fidel Salinas Ferrer

"Friki"

I. urteurrena



Hor utziko dugu.

Etxekoak

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Adur Mariñelarena

9 urte pasa diren arren zure lagunek gogoan zaitugu

Etxarri Aranatzen



Juli Berastegi Arbizu

3. urteurrena

Ez dago malko nahikorik zure hutsunea betetzeko.

Eguneroko bizia ez da erraza izaten guretzat.

Bihotz-bihotzetik sentitzen zaitugu, momentu guztietan.

Etxekuek

Lizarraga-Ergoiena

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Adosatua salgai Uharte Arakilen. Jantzita.
135.000 €. 615 74 34 90.

Ikastaroak

AES. "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; "ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak", Arbizun, 35 ordu, ekaina; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia.Lazkoz.sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketak

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharra

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behargugu?lang=eu> bidez egin.

Tartariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daitezke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritza - trukea. Informazio gehiago larrezabaldk@inigoaritz.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publi-

EZKONTZAK

- **Elai Lazkoz Errazkin**, apiribilaren 12an Etxarri Aranatzen.
- **Ane Unamuno San Migel**, apiribilaren 13an Altsasun.
- **Josu Aldabe Salinas**, apiribilaren 14an Lakuntzan.
- **Rayan El Ogdí El Kasmi**, apiribilaren 14an Olaztin.
- **Saul Paniagua Llena**, apiribilaren 15ean Altsasun.
- **Jon Arbizu Otamendi**, apiribilaren 18an Urdiainen.
- **Aratz Beltza Serrano**, apiribilaren 22an Arbizun.
- **Oihan Busto Sueskun**, apiribilaren

koen inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota

23an Altsasun.

- **Nahiane Agirre Martin**, apiribilaren 23an Altsasun.

EZKONTZAK

- **Mikel Azpiroz Reparaz eta Teresa Goikoetxea Arregi**, apiribilaren 12an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Juan Baztarrika Otxoa**, apiribilaren 18an Olaztin.
- **Francisco Zubelzu Goikoetxea**, apiribilaren 19an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arratzak, garga-gardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleatik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

TXIRRINDULARITZA

RURAL KUTXAREN 3. GARAIPENA: Talde sakandarreko Asier Unanuek Gipuzkoako 23 urtez azpiko txapelketa irabazi zuen la-

runbatean Lazkaon. Bestalde, Rural Kutxa-ko Migel Angel Benito 2.a izan zen Pascual Momparler Memorialean.

Pilota



Irurtzngo 22. Pilota Txapelketak aurrera darrai

Ostegun Santuan, apirilaren 17an hasi zen Irurtzngo 22. Pilota Txapelketa-Lacturale Saria. Txapelketa benjaminetatik hasita senior mailara arte jokatzeko ari da, eta guztira 100 pilotari baino gehiago ariko dira lehian. Dagoeneko makina bat partida jokatu dira, eta segidan dituzue emaitzak. Hurrengo egunetarako ere partida gehiago antolatuko dira: asteartean, maiatzaren lehenan eta ostiralean, hain zuzen.

Datozen partidak

Maiatzak 2, ostirala

18:00etan, Irurtzunen

Kadeteak

Exposito-X (Añorga) / Gaskuegil (Esteribar)

Madrazo-Martinez (Zaramaga)

/ Merino-Aristegi (Txaruta)

Gurrea-Etxegia (Uhartea) / X-

Zubeldia (Zazpi Iturri)

Mugiro-Bidaurreta (Zugarralde)

/ Arrieta-Etxeberria (San Migel)

Maiatzak 4, igandea

10:30ean, Irurtzunen

Haurrak

Galarza-Azpiroz (Irurtzun) / Gas-

ton-Otxotorena (San Migel)

Seniorrak

Zigarroa-Resano (Titin) / Bixon-

txo-Arratibel (Aurrera Saiaz)

Lansalot-Okiñena (Irurtzun) /

Loidi-Erazkin (Bear Zana)

Maiatzak 6, asteartea

19:15ean, Irurtzunen

Seniorrak

Ojuel-Lizeaga (Hernani) / Ape-

zetxea-Erostarbe (Zazpi Iturri)

Lopez-Bergera (Irurtzun) / Esku-

dero anaiak (Andoain)

Saskibaloia

Naiara Diez maila gorenera

SASKIBALOI JOKALARI ALTSASUARRAREN TALDEA, GERNIKA, EMAKUMEZKOEN LIGAKO LEHEN MAILARA IGO DA.

Une gozoak bizi ditu Naiara Diez saskibaloia jokalaria altsasuarrak. Izan ere, bere taldea, Gernika Kesb, Emakumezkoen Ligako bigarren mailatik lehen mailara igo da. Orain taldea bulego bulego atejok ibili beharko da, hurrengo denboraldian emakumezkoen saskibaloiko maila gorenera aritu ahal izateko finantzazio bila. Badirudi gauzak ongi doazela, baina dena itxita egon arte itxaron beharko da.

Naiara Diez (1987-01-29, 1,78m) jokalaria altsasuarra Gernikako pilareetako bat izan da. Gernikan

aritu baino lehen, altsasuarra 7 denboralditan aritu zen Emakumezkoen Ligako lehen mailan, azkeneko lau denboralditan UNB Obenarekin. Baina krisiaren eraginez Nafarroako taldea desagertu eta gero, 2013-2014 denboraldirako Emakumezkoen Ligako 2. mailako Gernika taldean aurkitu zuen tokia altsasuarrak.

Talde onena

Taldeak sekulako denboraldia egin du. Ligalehen postuan bukatu zuen, igoera faserako sailkatuz. Astebu-



Gernika taldea, Naiara Diez tartean, igoera ospatzen.

ruan igoera fasea jokatu zuen, Logroñon, eta partida guztiak irabazi zituen, meritu guztiz Emakumezkoen Ligako 2. mailako titulua irabaziz eta hurrengo denboraldian lehen mailara igotzea lortuz. Meritua handiagoa da kontuan izanda Gernikak aurrekonturik baxuene-

takoa duela eta taldean harrobiko jokalariek aritzen direla.

Diezek zeresan handia du taldeak egindako lan ikusgarrian, taldeko oinarrietako bat baita. Altsasuarra jokalaria aparta da, hegaleko pibota, eta joko ikusgarria egin du.

gertutik >>

Naiara Diez

Gernika Kesb taldeko saskibaloia jokalaria altsasuarra

Zorionak Naiara. Zer moduz?

Oso ongi. Pozik. Oraindik lortutakoa ezin sinetsi. Denboraldi oso ona egin dugu. Igoera faserako sailkatzea albiste izugarria izan zen, eta igoera fasea irabaztea eta maila igotzea... amets bat lortzea. Nahiz eta denboraldi bikaina egin ez da erraza izan. Partidaz partida joan gara, lan izugarria egin dugu, entrenamendu gogorak, gorputza zaindu, bideo pilo bat ikusi...

baina lortu dugu. Gainontzeko taldekoek ere esan digute lehen mailara igotzea merezi genuela, demostratu dugulako.

Oraindik hodeietan zaudela dirudi.

Bai (kar kar)! Izan ere igandean lortu genuen igotzea eta oraindik disfrutatzen gaude. Astelehenean harrera egin ziguten Gernikako udaletxean, plaza jendez beteta

zegoela. Harrigarria izan da gernikar guztien babesak. Herri txikia da Gernika, baina partidetan kiroldetgia beteta egon da eta Logroñoko igoera fasean pabilioia gernikarrek beteta zegoen. Kaletik zoaz, jendeak zoriontzen zaitu eta babes izugarri hori sumatzen duzu. Ondo sentitzen zara. Izan ere, taldekide gehienak gernikarrak dira, harrobirik sortutako taldea da, eta asko nabaritzen da.

Hurrengo denboraldian, hortaz, lehenengo mailara.

Juntakoak orain finantzazioa lortzeko lanean dabilta eta ez dago zalantzarik dena emango dutela. Ea posiblea den Gernika

lehen mailan aritzea. Badirudi gauzak bide onetik doazela baina guztia ongi itxita egon arte itxarrotea, ez dago besterik.

Gernika taldean jarraituko duzu?

Nire lehen aukera hemen segitzea da, izugarri ongi tratatu nautelako eta oso gustura nagoelako. Gernikara etortzeko erabakia guztiz ona izan zen. Taldean oso ongi moldatzen gara guztiak, gehienetan euskaraz hitz egiten dugu, eta harreman ona dugu. Ez dut hitzik Gernikak eman didan guztia eskertzeko. Hemen segitzea nahiko nuke baina gero ikusiko da zer datorren.

Automobilismoa

Sakandarrak txukun Andosillan

Sakana Motorsporteko 3 talde lehiatu ziren Andosillako Lur gaineko II. Rallysprintean

Igandean Andosillako lur gaineko II. Rallysprinta jokatu zen, Nafarroako Rally Txapelketarako eta I. Lur gaineko RACVN Koparako puntuagarria. Sakana Motorsport klubeko hiru taldek hartu zuten parte: Oier Larrañaga eta Arkaitz Irigoien bakaikoarrak (Citroen AX), Aitor Fernandez-Iker Azkargorta (Olazti-Iturmendi) eta Iban Lopez de Goikoetxea-Lander Mella (Olazti-Mungia). Azken bi talde hauek I. Lurgaineko RACVN Kopan lehiatuko direnez, Ford Focus 1.6 autoak erabili zituzten, aipatu txapelketarako auto berbera erabiliko baitute gidariek.

Andosillako eremu oso azkarra zen, gorabehere eta arrasantez betetakoa. Oier Larrañagak pilotu moduan debutatu zuen. Bakaikoarrek lan txukuna egitea eta euren



Andosillako probaren barruan RACVN Kopan lehiatzen ari diren bi taldeei dagokionez, nahiz eta entrenatzeko tarte askorik ez izan, lan polita egin zuten sakandarrek. Aitor Fernandezek eta Iker Azkargortak susto pare bat izan zuten lehen eremuan, baina proba ona egin zuten eta Kopako azken sailkapenean 3.ak izan ziren (26:55.300). Iban Lopez de Goikoetxea eta Lander Mella interfonorik gabe ateratu ziren lehen eremuan eta elkar ulertzeko eskuekin egin behar izan zituzten keinuak. Horrek kaltea sortu ziren. Kopako azken sailkapenean 4.ak izan ziren (27:11.900).

lurgaineko lehen rallya 21. postuan bukatzea lortu zuten (28:03.300).

Bestalde, aipatzekoa da Javier Goikoetxea olaztiarrak Egoitz

Mujika urretxuarrarendako kopolotu lanak egin zituela. RACVN kopako 2. postua lortu zuten (26:54.900).

II. Olazti Urbasa Rallysprinta maiatzaren 24an



Sakana Motorsportek eta Nafarroako Automobilismo Federazioak II. Olazti Urbasa Rallysprinta antolatuko dute maiatzaren 24rako, 14:00etan. Olazti herri gunetik pasako da ibilbidea, Urbasako Altamiraraino heldu eta atzera ere behera egingo duena. 5,5 km-ko ibilbidea 4 aldiz egin beharko dute pilotuek. Izena ematea zabalik dago maiatzaren 19ra arte, federazioko webgunean: www.fenauto.com.

Binakako finalik gabe geratu gara

Xala-Zubieta Binakako finaletik kanpoan geratu ziren, Irujo-Barriolaren kontra 22-8 galdu eta gero

Ezingo da izan. Xala eta Aitor Zubietak ez ditugu Binakako finalean ikusiko. Irujo eta Barriolaren kontrako finalerdian 22-8 galdu zuten. "Aukerapolita galdu dugu. Beraiek oso ongi lan egin dute. Partida gogorra izan da, markagailuak islatzen duen baino borrokatuagoa" adierazi zuen partida bukaeran Aitor Zubietak.

Duatloia

Felix Benjumea Eibarren

Altsasuarra 16.a sailkatu zen

Larunbatean 23. Eibarko Duatloia jokatu zen (5 km korrikan, 19 km bizikletan eta 2,3 km korrikan). Ander Agirre izan zen azkarrena (54:13) eta emakumezkoetan, aldiz, Lourdes Oartzabal (1:05:10). Sakanako Triatloi Taldeko Felix Benjumea altsasuarra 16.a sailkatu zen (58:22).

Txirrindularitza



Qesos Albeniz, talde onena.

Etxeberria etxean garaile

Burundakoak kadeteen 27. Burunda Trofeoa irabazi zuen Altsasun

Larunbatean kadeteen mailako lasterketa jokatu zen Altsasun, 27. Burunda Txirrindularitza Kluba Trofeoa. 50 kilometroko proba izan zen eta txirrindulariek Altamira igo behar izan zuten. 39 txirrindularik osatu zuten proba. Burunda Klubeo Qesos Albeniz taldeko Asier Etxeberria izan zen azkarrena, helmugara bakarrik helduta (1:24:56). 3 segundoko aldea atera zion atzean zuen taldetxoari. Qesos Albeniz izan zen probako talderik onena.

Mendia

1003 mendizale XXV. Sakanako Ibilaldi Handian

Ibilaldia alderantziz egiteak harrera ona



25. urteurrena modu berezian ospatzeko, atzetik aurrera osatu behar izan zuten mendizaleek aurtengo proba. Harrera ona izan zuten aldaketak, nahiz eta ibilaldia bera zailtzen zuten. 6:30ean abiatu ziren lehendabiziko kideak: maldan gora ekin zioten Ergako Trinitaterainoko bideari. Ondoren Aralarko San Migelera heldu ziren, Uhartea Arakilera jaitsi eta ondoren Beriaingo San Donatora igotzeko. Txurregitik jaitsiz iritsi ziren Irurtzunerara. Guztira, ibilbide luzea egiteko 3.100 metro arteko maldak izan zituzten. Ordu bete beranduago irten ziren martxa motza osatzeko asmoa zutenak. Trinitatea igo, Latasatik jaitsi, Golaratzeko bide zaharretik Larrazpilera igo eta Madotzetik Itxaspe-rriko Santiagora jaitsi ziren, usategira igo ondoren Irurtzuneraino iristeko. Gehienez 1.400 metroko maldak izan zituzten. Helmugan diploma jaso zuten guztiek eta Surya masaje eskolako eskutik masajea hartzeko aukera izan zuten. ARGAZKIA: SOKORRO ALTZUETA.

Arrakastatsua izan da Iratxok antolatutako 25. Sakanako Ibilaldi Handia. Irurtzundik abiatutako 1.003 lagunetatik 802 mendizalek ibilbidea osorik egin zuten (52,5 km) eta beste 201ek ibilbide motza (24,4 km) osatu zuten. Mendi martxa ez lehiakor hau Nafarroako luzeena eta beteroena da eta Nafarroako eta Euskal Herriko Zirkuituetarako puntuagarria da.

Antolatzaileak oso kontentudau-de. Aurretik izena eman zuten men-

dizaleak 700 izan ziren, eta 800 lagun espero zituzten, baina azkenik 1.000 baino gehiagok hartu hartu zuten eta egunean bertan elikagai gehiago erosi behar izan zituzten 6 hornidura gunetan ezer falta ez zedin. 50 boluntario pasa aritu ziren lanean.

Eguzkirik ez zen atera egun osoan eta hodeiak eta noiznahi euria izan zituzten mendizaleek. Askok ordea gogoan zuten aurreko urteak zailagoak ere izan direla, elurra izan baitzuten bidean.

Datozen urteei begira

Sakanako Ibilaldi Handiaren amaierarik ez du ekarriko hogeita bosgarren edizio honek. Aurtengoaren gisara egingen duten, hauda, ibilbidea atzekoz aurrera osatuko duten airean dago, parte hartzaile askori asko gustatu zaielako. Baloratu beharko dute. Bestalde, proba antolatzeko babesleen laguntza eskertu dute Iratxokoek, aurtengo Nafarroako Rural Kutzak emandako laguntza nabarmenduz.

Guapa jar zaitez gure makilladoreekin!

Redin LANCOME

Maiatzak 12tik 17ra
948 562 452 · Altsasu

Hostoak lorezaintza

PRODUKTUAK
Kanporako eta barrurako landareak, baratza, turba, lorontziak...
oso prezio onean!

MAIATZEKO ORDUTEGIA
Astelehenetik larunbatera
10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara

ITXITA
Ostegun goizetan eta larunbat arratsaldetan

Abarategi kalea
Lakuntza · 672 401 326
hostoak@yahoo.es

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

guaixe Sakanaz sarean

2014ko errenta aitorpenean bazkide kuotaren %25a itzuliko dizute

Ziurtagiria jasotzeko, deitu 948 564 275 - 948 562 107 edo pasa zaitez bulegotik, Foru plaza 23,1. Altsasu



Nonerabili

ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketa betengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA

ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100€ko txekoa opari.

KIXKUR ESTETIKA

ZENTROA

ZIORDI

30€ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA

ALTSASU

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI
ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JON CORDON TAXIA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN
HARATEGIA

UHARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

MARTIARENA
GAZTANDEGIA

UHARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

BERGARA
CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK

ARBIZU

%10 eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



ITZIAR NAZABAL BILBON: Margolari altsasuarrak Bilbao Art District parte hartuko du bihar goizean. Nazabal eta beste 39 akuarelistek formatu handiko akuarela baten mar-

gotzean parte hartuko du. Bestalde, igandean, Senpereko Larralde etxean Brigade contemporaine taldeak antolatutako erakusketan parte hartu zuen Nazabalek.

Dantza aireak Lakuntzan

Igandean Elai Alai eguna ospatuko da

Elai Alai dantza taldeak bere eguna ospatuko du etzi Lakuntzan. Egurdian elkartuko dira 60 dantzariak eta Lakuntzan barnako kalejira abiaraziko dute. Fanfarrea lagun, hainbat tokitan geldialdiak eginen dituzte dantza saioak eskaintzeko. Kalejira herriko plazan bukatzea eta han denek dantzaldia eskaintzea izaten da ohitura. Baina plaza berritzeko lanek tokia aldatzea behartu dute eta azken dantzaldia eskolako patioan izanen da. Ondoren, guztiak bazkaltzera elkartuko dira.

Lakuntzako dantza taldean 60 dantzari daude. Herrikoak dira gehienak baina hainbat arbizuar ere badaude. Olaia Martiarena irakasleak esan digunez 5 eta 24 urte bitarteko dantzariak osatzen dute Elai Alai eta adinaren arabe-



ra taldeetan banatuta daude. Dantzari txikiak ostegun arratsaldeetan elkartzen dira, 16:00etatik aurrera, talde bakoitzaren arabera ordutegian. Helduak, berriz, larunbat egurditan izaten dituzte entseguak. Lehenak Dantza dantzari koreografia ikasten ari dira egun hauetan, igandean eman ahal izateko.

Martiarenarekin batera Olatz

Arraiza ari da txikienei dantzan irakasten. Hodei Flores, berriz, helduen taldeaz arduratzen da. Apiribil hasieran Iruñean ospatu zen Folk Lore egunean parte hartu zuten. Maiatzaren 31n Etxarri Aranatzan izanen da Elai Alai eta Arbizuko festetan ere ez du hutsik eginen. Deitzen duten tokietara joateko prest azaldu dira dantzariak.

Dantzari txikien hitzordu altsasuarra



Bihar, 11:00etatik aurrera hiru taldetako ehundik gora dantzari txiki izanen dira protagonista

Altsasuko Dantza Eskolak bihar anfitriio lanak egin beharko ditu XX. Dantzari Txiki egunean. Etorbizuna dantza taldeko dantzariak aparte, Urretxuko Lurra eta Ibarrako Alurr dantza taldeetako dantzariak parte hartuko dute. Ehun dantzari txiki baino gehiago elkartuko dira bihar Altsasun.

Eguerdirako jarri dute hitzordua

Altsasuko Musika eskolan. Erraldioen laguntzaz kalejira abiatuko dira handik, Zumalakarregi plaza-tik, San Juan kaletik eta Iortia kultur gune paretik pasatuz Foru plazan bukatzeko. Hara iritsitakoan dantzaldia eskainiko dute guztiak. Hura bukatzean eta herri ezberdinetako dantzarien arteko harremanak estutzeko, bisitan heldu diren dantzariak altsasuaren etxeetan bazkalduko dute, aspaldiko ohitura berreskuratuz. Eguraldiak lagun-duko ez balu emanaldia Zelandiko frontoira lekualdatuko litzateke.

bazterretik

Aritz Viñas

El Niño De La Hipoteca

Kaixo lagunok!!

Gaurkoan kantautore bati buruz hitz egitea tokatzen da. Azkeneko urteetan eta youtube-ren laguntzaz, ezagutzen ez genituen talde eta musikagile ugari ezagutzeko aukera izan dugu.

Guiu Cortes, "el niño de la hipoteca" bezala ezaguna, Bartzelonako metroan jotzen hasi zen musikagi-

le bat da. Bertan hasi zen beste hainbat abeslariaren bertsioak egiten, baina horretaz aparte bere abesti propioak idazten zituen, hauek ez zituen abesten aspergarriak zirela uste zuelako.

Talde batean jotzen zuenean bere lehenengo diskoa ateratzera animatu zuten, taldekideek eta hainbat lagunek animatu zuten lehen maketa ateratzera, eta hortik "Que te vaya bien" diskoa argitaratu zuen. Lehenengo disko hau eta bigarrena "Mi

novia de 2ª B" salgai jarri zituen, baina hortik aurrera ateratako "Gratis Hits" diskoa bere webgunetik jaitsi dezakegu dohainik.

Bere musika oso entzungarria da, nahiko lasaia baina baditu edozein pertsona pozteko moduko abestiak ere. Bere letretan metafora ugari aurki dezakegu eta nire ustez xarma berezia ematen diote musikagile honi. Letrek kritikak egiten dituzte batzuetan (Africa, Lloran tus ojos tierra...), beste batzuk amodiozko-

ak dira (*Mi novia de 2ª B*), denak umore fin batekin bilduta.

Zuzenean akustikoak egiten bakarrik dagoenean, bere banda etxean utzita, oso kontzertu dinamikoak egiten ditu tabernetan edo leku txikiagotan, bertan ikusleekin kimika handia sortzen du, berak dienez politagoa da, baina zailagoa ere, akats bakoitzagehiago nabari delako.

Abeslari honetaz gehiago jakiteko aukera bikaina da bere Youtubeko

kanala begiratzea. Bertan bere abesti gehienak ditu eta horietako asko beste musikagile edo talderen kolaborazioekin.

Orain kanpaina bat egiten hari da bere Youtube-ko kanalean, bertan bideoak igo eta hauek jasotako bisiten bidez jasotako diruarekin (hilean 10€-15€) oraingo gitarra zaharra aldatzeko asmoarekin. Beraz bertatik pasatzen bazarete, gainera, laguntza emangodiozue gitarra berri hori erosteko.

Alde zaharreko festetan zatoz gure tabernetara!

XURRUT
ALTSASUKO TABERNEN ELKARTEA

Arkangoa, Lurrazpi, Gautxori, Urtzi, Koxka, Xume

di-da >>

LITERATURA

ARRETXE NOBELA
BELTZAZ CUENCAN

Asteburuan Cuencan Las Casas ahorcadas, nobela beltzaren II. topaketa ospatu da. Udal liburutegiko eleberrri kriminaleko klubak antolatutako topaketan parte hartu zuen Jon Arretxek. Liburuak sinatzeaz aparte, arbizuarrak beste egile batzuekin batera segurtasun indarren korrupzioari buruzko mahai-inguru batean parte hartu zuen ostira-lean. Larunbatean *Shahmarán* (Erein, 2009) liburuaz hitz egin zuen eta gainera Saharaz azpiko lurraldeetan kokatutako bere liburuez hitzketatu zen Espainia beltza, pateratik ghettoera saioan.

OLASAGARREREN
LANAZ HIZKETATZEN

Ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian Bi hilean behingo hitzorduari segituz, ostegunean elkartuko dira Etxarriko irakurle taldeko kideak. Hitzordu berrian Juanjo Olasagarrenen Ezinezko maletak liburuaz ariko dira. Aingeru Mikeok dinamizatuta, arbizuarraren eleberriarren inguruan hizketatu dira. 13 pertsonen eman zuten izena taldea abiaraztean, baina saio bakoitzera joateko izena eman daiteke. Horretarako Victoriano Huizi udal liburutegitik pasatzea besterik ez da egin behar. Azken saioa garrilaren 26an izanen da.

PINTURA

MARGOLARI ARTISTAK

Nazabal arte eskolako ikasleen lanak 15era arte lortia kultur gunean ikusgai Itziar Nazabalen arte eskolan margotzen ikasten ari diren ikasleen lanak irakaslearen tailerra edo euren etxeetatik aparte jendaurrean ikusteko aukera dago gaurdanik. 3 urtetik gorako margolarien lanak ikusteko aukera izanen da. Sortzaile ugaritasunean teknikak eta estiloak ere anitzak dira. Aurretuen dabiltzan ikasle batzuk, gainera, margolari ezagunen teknikekin trebatu dira eta elkarrekin sormentzen lana egin dute.

Dagoeneko salgai daude antzerki amateurreko ziklorako bonuak

Zikloa hiru emanaldik osatuko dute eta hiruak 12 euroren truke ikus daitezke. Bestela emanaldiko 5 euro

Laugarren urtez Tarima Beltza antzerki taldeak Teatres izeneko antzerki amateur zikloa antolatu du. Juan Manuel Herrero aurkezpenean adierazi zuenez, taldearen asmoa antzerki amateurren aldeko apustuari eustea da. Aurreko hiru urtetako balantzea oso positiboa dela esan zuen Herrero, “ez bakarrik asistentzia handituz joan delako. Etorri diren taldeak pozik joan direlako, bai babesten duen publikoarekin bai lokalarekin ere”. Pixkanaka antzerki publikoa sortu dela azpimarratu zuten Tarima Beltzetik eta horretan antzerki tailerraren eta euren sorrerak zerikusia izan duela nabarmendu zuten.

Mertxe Herrera De la Martak gaineratu zuenez, beste taldeei eszenatoki berri bat eskaintzearekin batera, antzerki publiko berria sortzea dute helburu. Horregatik, aurreko bi urtetan Aralarko Mikel Donea institutuko antzerki taldeko kideak gonbidatu dituzte. Edota beste erakundeetakoak ere. Eta batzuk estreinakoz antzerki-

Zozketak

Emanaldi bakoitzaren ondoren bi zozketa egingen dira. Batetik, Altsasuko Dendari Elkartek emandako 50 euroko gastu txartela, elkarteko edozein denda gastatu ahalko dena. Eta, bestetik, Xurru elkarteko tabernek (Arkangoa, Gautxori, Koxka, Lurrzapi, Urtzi eta Xume) emandako ardo botilak.

Egitaraua

En lo más crudo del crudo invierno. Maiatzaren 10ean, larunbatean, 20:00etan. **Incierto Troupe & Kromlech Teatro.**

Fuera de quicio. Maiatzaren 17an, larunbatean, 20:00etan. **Complexo Teatro.**

Divinas palabras. Maiatzaren 24an, larunbatean, 20:00etan. **El Bardo.**

ra joatea lortu dute. Aurten Josefina Arregi klinikako lagunen elkartea, Afinna eta Sakanako Ezgaituen Elkarteko kideak gonbidatu dituzte antzezlanen gozatzera, elkarte bakoitzari 15na sarre-
ra emanez.



Laguntzez

Zikloaren antolakuntzan Tarima Beltzak udalaren laguntza izan du. Hasier Gonzalez Larrañaga zinegotziak herrian halako zikloa antolatzen duen talde bat izatea pozgarria dela aipatu zuen aur-

kezpenean. Altsasuko antzerki taldea Nafarroako antzerki talde amateurren federazioan dago eta haren laguntzarekin antolatu dute zikloa. Horretarako Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza izan dute.

Saria Suarezendako

Peru Abarka album
lehiaketa irabazi du
altsasuarrak

Castillo Suarezek Zerua berun narrazioarekin irabazi du Peru Abarka lehiaketa. Ibaizabal argitaletxearen eta Markina-Xemeingo Udalaren lankidetzatik sortu da Peru Abarka album lehiaketa. Bere helburua helduen literaturako album ilustratuak sustatzea da, “letrak eta artea uztartuz”.

Lehiaketako epaimahaiak adierazi duenez, “barne-bidaia baten flash itsugarriek osatzen dute



narrazioa, prosaren eta poesien artean zangalatraba idatzitako lana”. Epaimahaiakideek gaineratu dutenez, “lerrokada sendo

eta irudi betearen bitartez, egileak bere baitako zauriak arakatzeko dituzten oroimena, haurtzarora, amodioa, inkomunikazioa, erbestea... gristasun itogarritik askatu nahian”. Eta bukatu dute esanez: “paralelismo eta enumerazioen ugaritasunak ozenagotu egiten dute ahapeka baizik menturatzen ez den ahots sakona”.

Ilustratzaile bila

Lehiaketak bi atal ditu. Lehena idazleei zuzendutakoa da, Suarezek irabazi duena. Bigarrena, berriz, idazlearen testua ilustratzeko lanik onena sarituko du. Narrazioa lehiaketako blogean

eskuratu daiteke. Eta biak batera album batean argitaratu eta lastailaren 24an aurkeztuko dute, Liburutegien egunean.

Altsasuarraren narrazioa ilustratu nahi dutenek euren lanak garagarriaren 27ra arte aurkeztu ditzakete Markina-Xemeingo udaletxean. Albumaren azalaren zirriborroarekin batera, guztiz bukatutako ilustrazio bikoitza aurkeztu beharko dute, koloretan (A-3 tamaina, liburuaren 2 orrialderi dagokiona). Gainera, gutxienez lau ilustrazio izanen dituen storyboard proposamenaren zirriborroa ere gaineratu beharko dute. Lanak formatu digitalean (jpg) aurkeztu beharko dira, 72 pixel inguruko erresoluzioan eta CD batean. Plika sistema erabili beharko da.

ZORROZTU
ZURE
ETORKIZUNA

Goierri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldia** gonbidatzen zaitu.

Ezagutu ezazu **Lanbide Heziketako** gure eskaintza.

• Erdi Mailako zikloak • Goi Mailako zikloak • HLPP - PCPI

Maiatzak 10, larunbata, 10:00etan

www.goierrieskola.org

Zeure begiz ikus ezazu.  Klik batekin informa zaituz.



Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 80%	euria: 60%	euria: 8%	euria: 5%	euria: 17%	euria: 75%	euria: 63%
Min: 7 Max: 10	Min: 7 Max: 12	Min: 5 Max: 16	Min: 5 Max: 25	Min: 9 Max: 17	Min: 8 Max: 13	Min: 6 Max: 14

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	17.6	3.6	27.3
Altsasu	17.5	4	34.5
Aralar	9.9	0.1	27.3
Urbasa	14	4	21.4

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
7	14	21	28

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Apiribileko bazkide sarituak

- 1.- **Julen Martiarena Arza**
(Uharte Arakil)
- 2.- **Patxi Berdote Hernandez**
(Urdiain)
- 3.- **Mari Jose Armendariz Labari**
(Lakuntza)
- 4.- **Asier Otsoa Etxeberria**
(Ziordia)

MAIATZEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera eta Gaztezu aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.

2. Artazako kanpinean %10eko deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera eta Gaztezu aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.

3. Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera, Gaztezu aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

4. Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera, Gaztezu aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

>> 11 galdera

Iñigo Urrutia

Irurtzungo Urrutia harategia

Testua: Maialen Huarte Arano



GUaiXe

KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

logotipoak
bisita txartelak
faktura-albaranak
eskuorriak...

argi@guaixe.net | 948 564 275
Foru plaza 23 - 1 | ALTSASU
www.guaixe.net | Beleixe irratia 107.3FM
guaiyekomunikazioa.blogspot.com

1. Erraz esaten dira 50 urte, baina garai onak eta okerragoak ere bizi izan ditu harategiak?
Ireki genuenetik hona urte bakar bat bera ere ez da berdina izan. Hasierako garaiek xarma berezia izan zuten. Orduan Irurtzun herri modura hazten hasi zen. Krisirik latzena orain ari da herria pairatzen, Inasaren itxierak eraginda bereziki. Jendeak ekonomikoki aurrera segitzeko zailtasunak ditu eta harategian ere antzeman dugu.

2. 50 urteotan jendearen erosteko ohiturak ere aldatu dira?
Asko aldatzen dira ohiturak bai. Garai batean, hilabeteen behin hurbiltzen ziren baserritar asko erosketa handiak egitera. Txekorra asko saltzen genuen lehen. Orain batez ere txerriak eta oilaskoak. Bizimoduak aldatzen diren heinean aldatzen dira erosketa egiteko erak ere. Jendeak askotan nahiago izaten du Iruñerriko saltoki handietan erosketa egin, herriko gertuko saltokietan egitea baino. Are gehiago krisiak gogor kolpatu duenean herria.

3. Zuei nola eragin dizue krisiak?
Aitak Urrutia harategia lehenbizi Lekunberrin zabaldu zuen, 1961. urtean. Gero iritsi zen Irurtzungoaren irekiera, 1964. urtean. Bi harategietan, garairik onenetan 10 langile izatera iritsi gara. Gaur egun bieten sei gaude asko jota.

4. Erosle kopuruari dagokionez, nola zabilzate?
Ohiturak aldatu dira eta askok saltoki handietan erosten dute dena: fruta, haragia, arraina... Baina, oraindik gurera hurbiltzen den jendea ere asko da.

5. Zer eskaintzen du Urrutia?
Kalitate handiko haragia eta hes-tebeteak bereziki. Haragia aspalditik ekartzen dugu Donibane Garazitik. Txerriak hazteko modua gustatzen zaigu, ahalik eta modurik naturalenean bizi direlako. Hornitzaileak ere beti berdinak dira, badakigulako kalitatea lehenesten dutenak direla. Eta guk harategian, toki zainduak ditugu: lehertzeko gela handiak haragiaren mantentzea goren izan dadin, adibidez. Orain dela gutxi berriro ditugu instalazio guztiak gainera. Sakanako produktua ere baditugu salgai, kontserbak adibidez. Hurbileko salerosketaren alde aritzen gara, erosleak gertutasuna senti dezan. Aukera zabala eskaintzen dugu.

6. Janari azkarrak gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Zuek ere moldatzen ari zarete garai berrietara?
Ez gehiegi. Kontserbak baditugu zainzuriak, pateak, piperrak... eta halakoak baina aurrez prestatu-riko ezer ez dugu eskaintzen, ez badira frijitu eta kroketak.

7. Txistorrak zuenean izen handia lortu du. Sariak ere lortu dituzue.
Txerria ongi zaintzearen eta elikatzerearen garrantzirik hasi eta osorik hemen zatikatzen iristen gara. Prozesu guztia kontrolpean edukitzeak segurtasuna ematen du eta horrek eragin zuzena du txistorraren kalitatean. Sariak dira horren adibide. Gure lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara eta erosleei daukagun onena eskaintzen. Berezko sekreturik ez daukagu. Aipatu ditugunez aparte mimoa eta maitasuna ematea, besterik ez.

Esperientziak ere ematen dio txistorrari dagokion ikutua, nik esaterako, 24 urte daramazkit harategian.

8. Aitak abian jarri zuen harategia. Orain senideen artean daramazue. Aitak Lekunberriko harategian ikasi zuen, hamabi urte zituela bertako harategi baten laguntzaila izanda. Irurtzunen hasi ginen aitarekin lanean seme-alabok. Familiarteko negozioa denez gustura egiten dugun lana da.

9. Herriaren parte sentitzen zaretela esan duzu. Nola lortzen duzue elkarreragin hori?
Harategian gertutasuna eskaintzen diegu. Kalitateaz aparte, herri-tarrei hurbilak izatea eta errespetu-azalpena eskaintzen badiezu, saltoki handietan eskaini ezin dietena ematen diezu. Hori da gure kasuan giltza. Herri euskalduna den alde-tik, gu ere saiatzen gara zerbitzua euskaraz ematen.

10. Jendea herriko saltokien garrantziaz konturatzen da?
Herria ez da herri, saltoki txiki-rik gabe. Egoera zailetatik irten gara, eta orain honetatik ateratzeko denon laguntza ezinbestekoa da. Herriko saltokiek badakite zer eskaintzen duten, prezioei dagokienez ezin dugu saltoki handiekin lehiatu, beraz gure esentzia mantentzen saiatu behar dugu eta gure onena eskaintzen.

11. Familia arteko negozioa da Urrutia. Etorkizunik izanen duena?
Etorkizun hurbilean harategiak aurrera segitzeko modua badu. Gure seme-alabek gustuko badute egin behar hau, gureta kopoz garrantzirik litzateke.